Besterenatzea

Orixe esan nahi du alienatzeak. Ni neu, besterena egin: besteren eskutan jarri naizelako edo besteak ni ohostu nauelako. Ni neu saldu naiz besteari edo besteak ohostu nau. «Ni ez naiz ni, ni alako naiz» esan dezaket orduan. «Ni» au beste nobaitegan galdua edo murgildua izan da.

Eta jakiña, besterenatze onek morrontzara narama. Nik ez dut neure buruaz agintzen. Ez naiz neure buruaren jaun eta jabe. Beste norbaitek agintzen du nigan. Beste baten zati nauzu. Besteak bereganatu nau. Bestearen mirabe naiz.

Neure dohairik ederrena saldu diot edo ni ohartzeke ohostu egin dit. Neure barruko «nitasuna» jarri dut besteren eskutan.

Bestalde billutsik jaiotako aur errukarria nauzu. Beste norbaitek jantzi behar nau. Ni bakarrik ez naiz gauza «ni» ori lantzeko, osatzeko. Besteari irekia egon behar dut «ni» orrek dauzkan utsuneak betetzeko. Ni ori nortasunera eramateko. Ni, nor izan nadin.

Ona emen kakoa. Iñork artu al dezake ezer emaillearenganatu gabe, besterenatu gabe, alienatu gabe? Lapurrak bakarrik ez du bereganatzen, baita emailleak ere. Nork igerri norberegan dagoena, bere-berea duen ala besterana? Nork jakin bestearengandik jaso duena aberasgarri zaion ala morrontza?

Eta jakiña, gizonik osoenak, argienak eta ospetsuenak egin ohi du besteengan distirarik argien eta lausogarriena. Batetik argitu eta bestetik itsutu. Batetik aberastu eta osatu eta bestetik lotu, beregatu, alienatu. Kristok jende asko lilluratu du. Baita Hitler-ek ere. Baita Maok ere. Baita ...

Gaur bere burua askatzeari ekin dio gizonak. Lokarri guztiak autsi nahi ditu. Besteren morrontzatik jaregin nahi du. Gizarteak, ohiturak, erakundeak eta abarrek jartzen dizkion uztarriak puskatu nahi ditu.

Eta errukarria ori guztia desegin nahi ez duenean. «Nik, ni izan nahi dut» esateari uzten dionean. «Ni» izaten ziñez saiatzen ez denean. Amets orri, burruka orri uko egiten dion gizonak, ukatu eta urkatu du bere gizon-izatea.

Baiña ez dezagun pentsa ezer berririk sumatu dugunik. Eta au itza eta pitza besterik ez darion zenbait jende ttutturrutturengatik diot. Gure aurrekoek ere «Askatasuna» jainkoa gurtu zuten. Guk berri bat, gaurkoago bat billatu dugu «Desalienazioa» izenekoa.

Dudarik ez, jendeari itsumenak, lilluramenak, lausoak kendu behar dizkiogu. Lo-zorrotik eta morrontza guztietatik atera behar dugu. Baiña ez ditzagun itsumen eta lauso berriak sor.

Jende asko argitu dugu, agian, lehengo morrontzaz, baiña, onenean, jende gutxi askatu eta bere buruaren jabe egin. Gaur emen eta bihar an dagoen jende arin asko sortu dugu, behar bada. Beste norbaiti buruz ikasitako dotriña, zer esaten ari dan aztarrenik gabe, bazter guztietan esaten ari dan jendea. Gaur talde ontan eta bihar talde onen etsai diranen artean dabillen jendea.

Tamalgarria da, baiña lehenean gaude. Lehen beste batzuen eskutan zeuden, gaur beste batzuek artu dituzte. Lehen bezain besterenatuak daude. Lehen bezain alienatuak.

Nik ni izan behar dut. Baiña ni ez naiz ni besteari irekia eg banago. Zer da nigan neurea eta zer besterena? Ona gizonaren korapillorik aundienetakoa.

GIZONAK

Oiñak

Gizona non hasten da, buruan ala oiñetan?

Goitik behera begiratzen badiogu, buruan. Behteik gora begiratu ezkero, oiñetan.

Hontan iritzi berdiñekoak ez gerala-ta, ez dugu burrukarik egingo.

Gizon oso-osoa oiñen gaiñean dijoa, oiñek daramate. Horregatik esaten dugu familia dala gizartearen oiñarri eta etxea harkaitzean oiñarritu behar dala: oiñak bezela, eusle diralako.

Ondo egiña dagoen gizonak bere etaí guztiak eintsukoak, proporziokoak, ditu. Belarri motx-motxak eta sudur luze-luzea duen arpegia ez zaigu gustatzen, ez da itxura onekoa, eintsurik ez du.

Oiñak ere beste gorputz atalekin proporzioan egon behar dute, batez ere buruarekin. Buru haundi batek oin haundiak eskatzen ditu; eta ez edertasuna dala-ta bakarrik, ez: buru astuna bi oin txikien gaiñean ez iltzake sendo egongo, ekilibrioa sarritan galduko luke eta lurrera danba eroriko litzake. Zer gertatzen zaie ba bi eta hiru urteko umeei? Burua haziegia dute beren oiñentzat eta... lurrean negarrez denbora asko igaro behar izaten dute.

Zirkoetako paiasoak hiru arra beteko oiñetakoekin ikusi ditugu. Parre egin arazteko jazten dituztela uste ahal duzue? Izugarrizko oiñak estaltzeko bai! Zirkoetan bizi dira horrelakoak. Gure artean 46 ko zapatak behar dituztenak baditugu; gutxi baiña baditugu.

Txina Zaharrean emakumeei oiñak hazten ez zien uzten; umetatik lazo buelta estuz biltzen zizkien oiñak neskei. Andre egiten ziranean oin txiki-txikiak zituzten. Horrela andreak politagoak zirala pentsatzen ote zuten? Ala gizonen menpean iñora ihes eziñik egon zitezen ote zan? Bi erantzunak ontzat emanak daude.

Lehen-lehen gizonak oiñutsik ibiltzen ziran; orain ere hala dabiltza toki askotan baiña pixkanaka galtzen dijoan ohitura da. Azal latza zuten gizon haiek. Baiña eztenak zirala, harri koxkorrak zirala, hotza zala... oiñak babestea erabaki zuten aspaldi. Oiñetakoak asmatu zituzten. Eta era guztitakoak ikusi ditzakegu orain dendetan: zapalak, muturdunak, gorriak, takoidunak, beltzak... Ba dugu aukera.

Oiñak garbitu egin behar dira. Eta sarritan gaiñera.

Lan asko egiten duen gizonak beste lasaitasun bat izaten du dutxa eder bat hartzen duenean; gorputza berrituta gelditzen zaio.

Oiñek ere lan asko egiten dute eta merezi dute garbitasuna. Horik ere konturatzen dira eta ez dira konformatzen zapata apain batzuekin estaltzen ditugunean: txukun ibilli nahi dute.

Neskek ez dute edozeiñekin dantza egiten; oiñak zapaltzen dituzten baldarrek ez dute neska aukerarik dantzarako behintzat.

Oiñazpi zapalekoak ez dute soldaduskarik egiten.

Oraindik bigun eta gazte ote zauden jakin nahi ahal duzu? Ia oin batekin okotza ikutzen duzun? Bai? Ez zaude gaizki!

ALKORTA

GARAZI-N GAINDI

Ez ditugu euskaldunok geure eskualdeak eta zoko politak ongi ezagutu ohi. Eta akats horren lekuko, ene ustez, Garaziko Doniane (Do-nia-ne diote, bai, garaztarrek, hiru abotsalditan) gure artean ezagunago eta goraipatuago ez izatea. Donibane Garazi da, ordea, bere harresi eder eta zahar-kutsu zoragarriarengatik, Iparraldean dugun herririk miresgarriena.

Donibane Garazi, bi mila biztanle eskas, gure herri-patuaren sinbolo bera izan liteke. Ezen agian Donibane Garazi gure herriak betidanik jasan duen ukaeraren eredutzat jar baitaiteke.

Inon baino nabarmenkiago, nik uste, Donibane Garazin agertzen zaigu kondairan barrena etxen arrotz izatea zer den. Hizkuntzaren mailan bertako izanaren ukaera oso horrek badu izen berezi bat: izkutuan datzan hizkuntzari «lengua latente» esaten zaio; eta Mitxelenak, euskarari buruz idatzi duelarik, hizkuntza-egoera bitxi hori aipatua du. Hueska-ko Iparraldean, esate baterako, gure hizkuntzalariak azaldu duenez, euskara izan da mendeetan barrena bertako «lengua latente» delakoa; alegia, dokumentoetan eta legean aipatu ere egiten ez den hizkuntza izkutu ukatua.

Zeharka bakarrik jakin daiteke kaso horietan bertako egiazko mintzaira beste bat dela; eta horrela jakin dezakegu gaur, Aierbe-Jaka-Hueska eskualdeari dagokionez, han eta hemen nekez bildu ditugun frogakariei esker (Goihenetxek eta Lakarrak ezagutarazi dituzten dokumento-kondarrak, Oihenartek XVII mendean bildu zituen gaitzizen mordoak, toponimia xehearen azterketak) bertako herria oso berandu arte euskalduna izan dela. Euskalduntasun hori ukatua zen *arras; geure desirarik sakonenak*, gizartean bizi-beharrez, arras ere zokoratzen eta izkutatzen ditugun bezalatsu.

Nafarroan bertan hori gertatu da askotan; eta gaur berton ere gertatzen ari da. Irigarai-ren ikertzapenek, eta orainago Latxaga-ren artikulu bikainek, «Montaña»ko berri ekarriz, herri «latente» (alegia, herri gorde izkutu isilarazi) horren lekukotasuna eman digute behin eta berriz. Baina aurreko mendeetan ez genuen tankera horretako Latxagarik ez Irigarairik izan; eta orain ezin egin somatu eta antzeman besterik.

Donibane Garazin, udan batez ere, isilik datzan herri «latente» gorde horren zantzua nekez somatzen da. «Saint Jean Pied de Port» irakurtzen da paneletan, baina bertakoek Donibane Garazi diote; «La Nive» irakurtzen dugu, baina bertakoek Errobi deritzate ibai horri; «Saint Jean le Vieux» irakurtzen, baina bertakoek Donazaharre esaten; eta «Roncevaux» idazten dena, han Orreaga esaten da.

Izan ere, «Pied de Port» hitzak, «Pied du Port de Roncevaux» dira beren osotasunean; Donibane Garazi Orreaga-ren azpian baitago. Donibane Garazi, hain zuzen, eta Orreaga, Oñati eta Arantzazu bezalatsu daude elkarrekiko: alegia, behereko herria batetik eta goiko komentu famatua bestetik. Urteagain-en, ordea, oraingoz bederen, ez dago Luzaide-Arnegi-ko mugarik. Baina «Pied de Port» abstraktoa da; eta halako batez beharbada Oñate «San Prudencio del Puerto» bihurtuko da; eta Urrexola, Luzaide.

Gorderik datza ere, era berean, Donibane-ren nafartasuna. Murru gaitz zahar haien ondoan, egia da, eta euskaldun eta frantses banderen aldamenean, Nafarroa-ko bandera gorria ageri da. Ostatuetan eta dendetan «Navarre» hitza ageri da maiz (ez sekula ere Baxenabarre, ez Nafarroa Behere, dena dela); eta bazkaldegi bateko ate-kirtenetan Nafarroa-ko kateak hautatu dira apaingarritzat.

Hori guztia zerbait badela, ezin uka. Eskos-en, gonbarazio batez, Donibane Garazitik 50 bat kilometrotara Iparralderuntz, ez dago horrelako nafar arrastorik, ez euskaldunik; nahiz Eskos-en XIX mendean euskara mintzatua izan bada ere. Donibane Garazi baino aisa abstraktoago bihurtu da Eskos; eta izoki-arrantzaren txapelketengatik ez bada, ozta ezagutzen du gaur inork.

Hau guztia aipatzen nion lehengoan garaztar sutsu eta kantari ezaguna den Eñuat Etxamendiri; eta honen erantzunak neure horretan sendotu ninduen: «Denek zekitek hemen euskaraz; baina ez ditek egiten, egia duk. Astelehenetan eta ostegunetan, ordea, inguruko baserritarrak azokara jesten direlarik, denak mintzo zaizkiek euskaraz». Hori jakinda nekez kontsola ninteke.

Frantses turista ikaratuko ez duten euskal bixigarri batzuk ez dira falta. Hori ez. Anitz dendatan «linge basque» saltzen da, eta hamaika turistak erosten eta jazten du txapel gorria edo berdea: «on est en Pays Basque». Baigorri-rako bidean letrero handi bat ageri da: «Ongui Ethorri»; eta lorategi batetan, landarez idatzirik, «Donibane Garazi» hitzak.

Lasa-ko dantzari-taldea ikusi dugu igandean kaleetan barrena; eta Zuberoa-ko maxkaradak etorri zaizkit gogora (Nik maxkaradak nahiago, bidenabar esateko).

Avignon-go garaian (1383-1417) apezpiku heterodotsoen bizilekua izan zen etxetik ez urrun, beste etxe harrigarri eta zahar bat ikus daiteke, adrilu gorriz eraikia; eta atalburuan hau irakurtzen da: «Año 1510». «Año», bai, ez «an», ez «anno», ez «urte»: «año» español-ez. Orduan Nafarroa libro zen orainо erreinu gisa; baina gaztelera zen lege-hizkuntza. Orduan ere Garaziko herria ukatua zen. Eta pentsakor gelditu naiz atalburuari so: orduan ere bai!

1512-ez geroztik Garazi berezi egin zen Iruñetik, Seigarren Merindade osoa bezala; eta Iparraldeko nafarrak ebakita gelditu ziren Ahuñemendian. 1527-tik 1772-ra arte, bi mende t'erdiz beraz, bi partetan egon zen Nafarroa: bi Gorte, bi hiriburu; baina beti Iruñe amets Iparraldean. Eta hauxe harrigarriena, beharbada: Baxenabarren, ohiturari jarraituz, eta beti ere Iruñeko Forua oinarri, bere Juntak Donapaleura eta Donibane Garazira biltzen zirelarik, Juntarako dei-txartelak, 1772-ra arte ongi diot, gazteleraz idazten ziren, eta hitz hauetaz hasten: «Al muy magnífico señor de...» Juntetako eztabaidak euskaraz egiten ziren (juntero izateko euskaraz jakin behar zen Baxenabarren); baina legea gazteleraz erabiltzen zen, eta erabakiak erdaraz biltzen. Hori guztia horrelaxe 1772-ra arte, eta Ahuñemendiko Pake famatua egin ondoren ere!

Donibaneko inguruak, zoragarri: Baigorri, Ortzaize, Lekunberri, Mendibe. Ikusgarri benetan Behorlegi herriska garaia; Hozta-rekin batera Baxenabarren ezagutzen dudan arkaikoena. Eskualdea zinez ederra; eta mendiek osatzen duten inguramendua, aparta.

Behorlegi-tik jestean berriz gertatu naiz pentsakor: Mendibe! Gizajoak haiek ere! Bi urtez egon ziren han zai, egunero zai, beti zai; eta zai hartan euskaraz kantatzen zuten maiz Mendiben eta Azkainen. Eta azkenean etxera bi*ditu egin zuten. Eta* arras nardahurtzeko agindu zitzaien; eta obeturik, eta etxera bihurtzerik ez zedukatelako, sakabanatu ere egin ziren munduan zehar. Eta orain ez dute gogoartu ere nahi Mendibeko urte pare hura. Hogei-ta-lau urte igaro dira geroztik, eta dena ahantzi da. Eta Mendibe-Lekunberriko bazterrak isilik dautza geroztik.

Noizean behin bakarrik gazte mordoak handik pasatzen. Baina gaurko hauek beste helbururik dute bihotzean; eta Charles Iriart-en *bulegora doaz, Ameriketarako* txartela erostera. Eta denok dakigu Behorlegiko tontor ederrak ez dituela inoiz birrikusiko.

LARRESORO

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta